

## Euskadiko AEko gero eta enpresa gehiagok erabiltzen dituzte teknologia digitalak; 2020an, sare sozialen erabilera da nabarmenena, % 51,3ko erabilera izan baitu

***Euskal enpresetako enplegatuen % 10,9 espezialistak dira informazioaren teknologietan, eta % 74,7k sistema horiek erabiltzen dituzte***

Enpresen eraldaketa digitala dela eta, Sare Sozialak dira (enpresa-xedeetarako erabiltzen dituzten establezimenduen % 51,3) aztertu diren bederatzi adierazleetako nabarmenena, baina ia horietan guztietan gorakadak egon dira erabileran, Eustaten datuen arabera.

Jarraian, Zerbitzu Mugikorrek daude (% 29,0), 2019an baino ia hiru puntu gehiago. Zerbitzu mugikortzat jotzen da enpresaren jarduerarekin eta ekoizpen-prozesuekin zerikusia duten aplikazioak erabiltzea.

Hirugarrenik, Hodeiko Zerbitzu Informatikoak (Cloud Computing) daude; ostatatze horregatik ordaintzen duten establezimenduen % 21,9 (ehuneko 1,6 puntu gehiago); hala, enpresa baten informaziora edo zerbitzura jotzeko aukera ematen da, Interneteko konexioaren bidez, edozein lekutan dagoen edozein gailu mugikorretik edo finkotik.

Ondoren, %10 eta % 20 bitarteko ehunekoekin, honako hauek daude: Zibersegurtasuneko Jarduerak (% 19,6), Gauzen Interneta (% 12,7) eta Big Data Analisia (% 12,5). Hori guztiek hazkuntzak izan dituzte, eta, nabarmenena, Gauzen Internetaren erabilera izan da, haren erabilera adierazi duten enpresen ehunekoak ia ehuneko hiru puntu egin baitu gora. Azkenik, % 10etik behera, Adimen Artifiziala (% 3,0), 3D inprimagailuak (% 2,7) eta Robotika (% 2,7) daude.

### 4.0 Industriaren adierazleak Euskal AEko establezimenduetan enplegu-tamainaren arabera (%). 2020

|  | Guztira | 10 enplegatu edo gehiagokoak |
|--|---------|------------------------------|
| Sare sozialen erabilera enpresa-helburuetarako | 51,3    | 68,3                         |
| Zerbitzu mugikorren erabilera                  | 29,0    | 42,4                         |
| Zerbitzu informatikoen erabilera "hodeian"     | 21,9    | 44,0                         |
| Zibersegurtasuneko jarduerak                   | 19,6    | 41,9                         |
| Gauzen interneten erabilera (IoT)              | 12,7    | 19,5                         |
| Makrodatuen analisia (Big Data)                | 12,5    | 22,2                         |
| Adimen artifizialeko sistemen erabilera        | 3,0     | 6,0                          |
| 3D inprimagailuen erabilera                    | 2,7     | 8,8                          |
| Robotikaren erabilera                          | 2,7     | 11,7                         |

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

10 enplegatuko edo gehiagoko establezimenduen kasuan, ehuneko horiek handiagoak dira, eta 2019aren aldean baita hazkuntzak ere. Sare Sozialak tamaina horretako establezimenduen % 68,3ra iritsi da (2019aren aldean hazkuntzako ehuneko 2,3 puntu), eta, % 40ren gainera, Hodeiko Zerbitzu Informatikoak (% 44,0; haren penetrazio-ehunekoak ia 8 puntu egin gora, 2019an % 36,3koa izan baitzen), Zerbitzu Mugikorak (% 42,4; 7 puntu gehiago) eta Zibersegurtasuneko Jarduerak (% 41,9).

Euskal enpresak gero eta prestatuago daude informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) ekipamenduetan, eta teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoa ere handiagoa da. Gaur egun, establezimenduen % 92,4k ordenagailua du, eta azken urtean ehuneko 1,3 puntu egin zuen gora. Posta elektronikoa duten establezimenduak guztizkoaren % 91,6 dira, 1,7 puntu egin baitute hobera, eta % 92,3k sarbidea du Internetera, 0,7 puntu egin baititu gora. Telefono mugikorra, bestalde, euskal establezimenduen % 93,9n erabiltzen da, eta 0,5 puntu egin du hobera, aurreko urtearen aldean. Gainera, enpresen erdiak baino pixka bat gehiagok (% 54,2) web-orrialdea du.

### IKT ekipamenduak establezimenduetan, lurralde-arlo eta tamainaren arabera. 2020

|                       | Ordenagailu pertsonala |             | Posta elektronikoa |             | Internet    |             | Telefono mugikorra |             | Web-orria   |             |
|-----------------------|------------------------|-------------|--------------------|-------------|-------------|-------------|--------------------|-------------|-------------|-------------|
|                       | %                      | Aldakuntza* | %                  | Aldakuntza* | %           | Aldakuntza* | %                  | Aldakuntza* | %           | Aldakuntza* |
| <b>Euskal AE</b>      | <b>94,2</b>            | <b>1,3</b>  | <b>91,6</b>        | <b>1,7</b>  | <b>92,3</b> | <b>0,7</b>  | <b>93,9</b>        | <b>0,5</b>  | <b>54,2</b> | <b>-0,4</b> |
| Araba/Álava           | 95,7                   | 1,0         | 92,6               | 1,2         | 93,3        | -0,6        | 94,7               | 1,3         | 55,7        | -0,9        |
| Bizkaia               | 93,0                   | 0,6         | 90,7               | 1,2         | 90,8        | -0,1        | 93,5               | -0,2        | 52,3        | -1,5        |
| Gipuzkoa              | 95,6                   | 2,7         | 92,6               | 2,6         | 94,1        | 2,3         | 94,1               | 1,1         | 56,5        | 1,4         |
| <b>Enplegu-geruza</b> |                        |             |                    |             |             |             |                    |             |             |             |
| 0 - 9                 | 93,8                   | 1,5         | 91,0               | 1,9         | 91,6        | 0,7         | 93,6               | 0,4         | 50,7        | -0,6        |
| ≥ 10                  | 99,4                   | -0,2        | 98,9               | -0,2        | 99,2        | 0,0         | 96,7               | 0,4         | 92,6        | 0,3         |

\* Ehuneko puntu-aldea, aurreko urtearekiko

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

### 10 enplegatuko edo gehiagoko enpresetan, IKT ekipamenduak ia disponibilitatearen gehiengora iritsi dira

Ekipamenduetako ehuneko horiek handiagoak dira 10 enplegatu edo gehiago dituzten establezimenduetan, baina, erabilera dagoeneko oso zabaldua dagoenez (% 99,4k ordenagailua du, % 98,9k helbide elektronikoa, % 99,2k Internetarako sarbidea, % 96,7k telefono mugikorra eta % 92,6k web-orrialdea), dagoeneko ez dute ia hazteko marjinarik, establezimendu txikien aldean.

Teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoa dela eta, langile okupatuak % 72,5ek ordenagailua erabiltzen du, % 68,1ek posta elektronikoa du eta % 67,6k Interneteko sarbidea du; zifra horiek guztiak aurreko urteko zifrak baino handiagoak dira.

**IKT ekipamenduak erabiltzen dituzten langileak, lurralde-arlo eta establezimenduaren tamainaren arabera (%). 2020**

|                  | Ordenagailu pertsonala |                              | Posta elektronikoa |                              | Internet    |                              |
|------------------|------------------------|------------------------------|--------------------|------------------------------|-------------|------------------------------|
|                  | Guztira                | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Guztira            | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Guztira     | 10 enplegatu edo gehiagokoak |
| <b>Euskal AE</b> | <b>72,5</b>            | <b>70,8</b>                  | <b>68,1</b>        | <b>67,1</b>                  | <b>67,6</b> | <b>64,6</b>                  |
| Araba/Álava      | 72,7                   | 71,0                         | 65,8               | 64,8                         | 64,0        | 60,4                         |
| Bizkaia          | 71,7                   | 71,0                         | 67,7               | 67,6                         | 67,9        | 66,1                         |
| Gipuzkoa         | 73,6                   | 70,5                         | 69,8               | 67,7                         | 68,9        | 64,5                         |

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

Bestalde, enpresen % 85,7k segurtasun informatikoko neurriren bat du, aurreko urtean baino 3,8 puntu gehiago. Neurri horien artean nabarmentzekoak dira, % 50etik gora, software eguneratua izatea (% 78,9), pasahitz segurua (% 77,2) eta kanpoko backup-ak (% 57,8). 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen kasuan, ehuneko horiek guztiak handiagoak dira, eta segurtasun informatikoko neurriren bat erabiltzen dutenak % 97,1 dira.

Gainera, 2020an, euskal enpresen % 35,7k software librea du, besteak beste, nabigatzaileak Interneten, ofimatikako programak, doako sistema eragileak edo irekiak (Linux,...) eta abar. 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresetan, ehunekoak gora egin du, eta % 51,0koa da.

Euskal enpresetako langileria aztertuz gero, langile enplegatuen % 74,7k, batez beste, IKT (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) sistemak erabiltzen dituzte, eta egiaztatzen da % 10,9 IKT sistemetako langile espezialistak direla. Gainera, langile guztien heren batek (% 33,5) urrutiko konexioa du, erabilera profesionalerako gailu eramangarri baten bidez. Azkenik, batez beste, enplegatuen % 5,4k enpresaren lokaletatik kanpo egiten dute, erregulartasunez, lan gutxienez lanaldiaren heren bat, eta IKT sistemekin konektatzeko sare telematikoa erabiltzen dituzte; beraz, telelangiletzat jo daitezke. Aipatu behar da 2020. urte honetarako informazioaren bilketa funtsean urteko lehen hiruhilekoan egin zela; beraz, COVID-19aren pandemiak urrutiko konexioaren bidezko sarbidean eta telelanaren modalitatean eduki ahal izan duen efektua baliteke zati batean baino ez islatu izana.

Ekipamenduekin ez bezala -kasu horretan 10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduekin proportzio handiagoak dituzte-, enpresetako langileek IKT teknologien kasuan egiten duten erabileran, ehunekoak tamaina txikiagoko establezimenduen aldekoak dira.

**IKT ekipamenduak establezimenduetan, lurralde-arlo eta establezimenduaren tamainaren arabera (%). 2020**

|                  | IKT erabiltzaileak |                              | IKT espezialistak |                              | Urrutiko konexioa duten langileak |                              | Telelangileak |                              |
|------------------|--------------------|------------------------------|-------------------|------------------------------|-----------------------------------|------------------------------|---------------|------------------------------|
|                  | Guztira            | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Guztira           | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Guztira                           | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Guztira       | 10 enplegatu edo gehiagokoak |
| <b>Euskal AE</b> | <b>74,7</b>        | <b>73,4</b>                  | <b>10,9</b>       | <b>9,6</b>                   | <b>33,5</b>                       | <b>30,0</b>                  | <b>5,4</b>    | <b>4,9</b>                   |
| Araba/Álava      | 76,9               | 76,6                         | 8,9               | 6,8                          | 30,0                              | 25,7                         | 4,0           | 3,0                          |
| Bizkaia          | 73,2               | 72,5                         | 11,5              | 11,0                         | 33,2                              | 30,6                         | 6,0           | 5,8                          |
| Gipuzkoa         | 75,8               | 72,9                         | 11,1              | 8,9                          | 35,5                              | 31,4                         | 5,2           | 4,5                          |

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

**Zuntz optikoaren bidezko konexioa gehien hazi den sarbidea izan da, eta ADSLak, berriz, behera egiten jarraitzen du**


Internetarako sarbidea duten euskal enpresak guztizkoen % 92,3 dira, gaur egun; izan ere, ehuneko 0,7 puntu handitu dira aurreko urtean konektatutakoak.

Internetarako sarbidea duten enpresa horietan, sarean sartzeko modu nagusiak honako hauek dira: telefono mugikorraren bidezko konexioak (% 88,1), konexio mugikorretan, eta zuntz optikoaren bidezkoak (kablea, FTTH...) (% 74,9) konexio finkoetan. Azken horrek, zuntz optikoak, hazten jarraitzen du, eta igoera handiena lortu du; dagoeneko, nabarmen gainditzen du ADSLa (% 51,4), sartzeko bide gisa.

Horrela, konexio finkoak, dela ADSL bidez, kable bidez edo beste konexio finko batzuen bidez, presente daude Internetarako sarbidea duten enpresen % 94,5ean, eta konexio mugikorrek, telefono mugikorraren bidez (Smartphonea, PDA, ...) edo ordenagailu eramangarriaren bidez (Tableta, netbooka, etab.) gaur egun enpresa konektatuen % 89,4an.

10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresetan, % 99,2k Internetarako sarbidea du. Neurri horretakoetan ere, telefono mugikorraren bidezko konexioak –% 90,1– eta zuntz optikoaren bidezkoak (kablea, FTTH...) –% 84,9– dira sartzeko bide nagusiak, ehuneko 2,1 eta 6,0 puntu handitu baitira, hurrenez hurren. Jarraian, konexio mugikorretan, ordenagailu eramangarrien bidezko sarbideak % 75,5 dira, azken urtean 4,1 puntu egin baitute gora, eta konexio finkoetan ADSL lineak % 60,5; azken kasu horretan, 6,6 puntu jaitsi da erabilera. Ondorioz, enplegu-tamaina horretan, konexio finkoak enpresa konektatuen % 99,1en daude eta konexio mugikorrek, % 91,4an.

**Internetarako sarbidea Euskal AEko establezimenduetan konexio motaren arabera. (%)**



(\*) 2008tik aurrera Kablea bereizi egiten da Beste konexio finkoetatik  
**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

**Euskal enpresen % 54,2k, 10 enplegatuko edo gehiagokoen kasuan % 92,6k, Interneten presentzia dute web-orrialdeen bidez**

Enpresak gero eta kontzienteagoak dira nolako garrantzia duen Interneten egoteak, web-orrialde baten bidez. Hala, azken urtean, sarean presente daudenak guztizkoaren % 54,2 dira, eta 10 enplegatuko edo gehiagoko enpresetan, % 92,6.


Web-orrialde horietan enpresaren beraren informazio orokorra aurki dezakegu, eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen katalogoa, informazioaren pribatutasunaren inguruko adierazpena, enplegu-eskaintzak eta salmenta ondoko zerbitzuak, besteak beste.

Sartzeko hizkuntzak direla eta, gaztelania da nabarmentzekoa, kasuen % 99,0an, euskara, % 42,4an, ingelesa % 31,6an eta beste hizkuntza batzuk, kasuen % 14,3an.

### **10 enplegatu edo gehiago dituzten euskal enpresetan Interneteko sarbidea dutenen eta webgunea dutenen kopurua EB-28ko Europako batez bestekoaren gaitetik dago**

Nazioarte-mailan, eta EB-28rekin erkagarritasun egokia egiteko, 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresen datuak eta Eurostatek jasotzen dituen jarduerak (ez dituzte finantza-sektorea, administrazio publikoa eta abar kontuan) baliatzeaz gainera, aurreko urteko informazioa erabili behar da, 2019koa; orduan, euskal enpresek Interneteko sarbideetan izan zituzten ehunekoak (% 99) Europar Batasuna 28koak (% 97) baino handiagoak izan ziren, eta, gainera, web-orrialdea duten enpresen ehunekoak ere handiagoak izan zen Euskadin (% 91), 2019an, EB-28ko batez bestekoa baino (% 78).

#### **10 langile edo gehiagoko establezimenduak, Interneteko sarbide eta web orriaren arabera, estatuen arabera (%). 2019ko urtarrila**



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak  
 EUROSTAT

#### **Argibide gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62